

# Etorkiaren mitoak eta genealogiak

• JOXE AZURMENDI •

[PENTSALARIA]

**H**au da Adanen ondorengo izen-zerrenda», hasten da Genesi edo *Hasierako* 5. kapitulua: Adanek Set izan zuen, Setek Enok, Enokex Kenan, eta horrela Noeganaino. Geroxeago, Abrahanganainoko zerrenda ematen da (*Gen.* 11, 10). Biblian hainbat zuhaitz genealogiko aurkitzen dugu. Baina genealogia eta izenbilketak denak ez dira egin interes berdinekin. Israel Babiloniako deportazioan bizi izan denean, beste herri esklaboekin batera eta nahasturik tribu denak, identitate galtzeko arriskuan egon da. Kezka horri erantzuten diote *Zenbakiak* eta *Nehem/Kron.* liburuetako izenbilketek. Testamentu berrian ere Jesus Nazaretekoaren genealogiak San Mateoren eta San Lukasen ebanjelioetan diferentekak dira, interes ezberdinekin egin dira-eta. Hori bai, Jainko biblikoa historiaren Jainkoa da; eta genealogia biblikoek beti giza bilakabidea Jainkoarekin eta Probidentziarekin lotu nahi dute nolabait.

Gizakiak eta jainkoak elkarrekin lotu, zentzu hertsian, heroiaren genealogia grekoek egiten dute, Israelen posible ez zen maneran - heroiok txapel-dun olimpikoak baino ez direnean ere, Pindaroren odetan ikus dezakegun ez. Iliadan, Zeusen alaba da Helena, Zeusen semea Eako - eta, beraz, Homero baitan dabilzaten eakida guztiak: Pele eta bere seme Akiles, Telamon eta bere seme Ajax, euren askazi eta etorki luze zabalekin. AiAxen ondorengoa da Milziades (beraz, Zeusena); Akilesean ondorengoa Pirro. Heraklidak dira Espartako erregeak (Zeusen haurrak hortaz). Etorki zerutarrekoak halaber Atenasen etengabe elkar borrokatu duten leinu eta bando nagusi biak, Pisistratidak eta Alkmeonidak - eta, beraz, Solonekin hasi eta, historiari ezagutzen ditugun atenastar handi sonako ia guztiak. Platon, Poseidonen etorkikoa bai aita bai amaren aldetik, bi aldiz jainkoak da. Espeusipok berak ematen duen beste genealogia baten arabera, ordea, Apolok eraldatu zuen egiaz Platon, haren ama Perikione eder-ederraz maitemindu izanik!

Erroman, Romulo eta Remo Marteren haurrak dira Rhea Silviagandik. Beste Rhea bat, Aventinoren ama Herkulesgandik. Merkurioaren seme Evandrok fundatu zuen Palatinoa, etc. Zazpi Muinoen hastapen mitikoak. Alabaina, gauza bat dira antzinate lainotsuko gorabeherak: Erroman norbere familiari etorki jain-

kozko bat —era grekoan— aitorzen lehena Zesar izan zela, ematen du, beste familia aristokratikoek errezeloz ikusita, modan zegoen aristokraziaren kultura helenikoari geroz eta gehiago arrimatzeko prozesuan. Zeharka egin du hori, egin ere, h. d., Naevio eta Enniok jada ezagutzen zuten Erromaren etorki troiarreko saga zaharra «gauzatuz». Saga horren arabera Troia hiria jain-

kozkoen eraikuntza zen. Eneas, Ankises erregearen eta Venusen semea. Honen seme Julus izango zen Erromako gens Juliaren burua, leinu horretako haurrak baitziren Zesar eta Augusto. Zesarren zinezko jainkotze formala —horrela, familiarena—, kultura eta guzti, Augustok egin du, asasinatoaren ondoren. Eta Virgiliok konsakratu du epopeia familiar/nazionalaz. Handik aurrera, Erromako familia patrizio denek asaba troiarrak edo zerutarrak bilatuko dituzte - Ernazimentuan berriz ikusiko ditugun jokaera etimologista berdinaz. Atioak (Azioak) Atys troiarrarengandik omen datoz; Memmioak, Menestheusengandik; Sergioak, Sergestusengandik, etab. Edo, Antoninoak Heraklesen haur Antonengandikoa ei dira.

Eneidan ikas dezakegun ez, Italia guztiak bilatuko du orain, lehen Grezia guztiak bezala, mundu homerikoarekin lotura, hirien eta eskualdeen jatorri grekoak edo jainkoak xerkatuz. Hala, Eneasen antzera, beste troiar sakabanatu batzuek, beste hiri eta erresuma batzuk sortu izango zituzten Italian: Azestsek Sizilian, Antenorrek Ligurian (Padua hiria sortuz); Capys, Eneasen lagunak fundatu izango zuen Capua, Pisa, Ardea, Arpi, etab., fundazio grekoak lirateke. Vulkanoren semeak fundatu izango luke Palestrina; Herkulesek berak Tarento. Manto ninfaren haurrak fundatu du Mantua, Virgilioren hiria; eta haurraren aita, nola ez, Tiberino ibai-jainkoa da. Horrela lotzen du sorterraren etorkia eta patua bere Nagusiaren Hiriarekin poeta lausengariak.

Jatorrien mitoak askotan horixe baino ez dira: balakua eta losintxa. Baina beti ez dira izaten gauza bera historian zehar. (Deus ulertu ez duenak bakarrik uste du, mitoak beti gauza berdinak direla —XII, XVI hala XIX. mendean—, errepikatzen direnean ere). Tribu eta familia nomada basamortukoan artean, genealogiak el-

karren arteko ahaidetasun loturak eta diferentziak markatzen zituen: larre eta ibilbide edo iturrien jabegoari jarraipena ziurtatzeko; eskubide bat (adib., lebita izatekoa) edo pribilegio bat finkatzeko, etab. (errege izateko «eskubide» genealogiko primitiboak gaur arte dirau). Grezian familia historiko handien garrantziaren adierazpen metahistorikoa ziren genealogia jainkoak... Gero, historian, kultura kulturatik bizi den bezala, mitoak mitotik.

Kristautasunak edozertaroko ikasliburua Biblia izan duen moduan, jentiltasunaren Entziklopedia Homero izan da, Eneida gero. Handik ikasi dugu denok zer garen. Ernazimentu baino lehen, Erdi Aroak jada iturri bietatik edaten zuen. Adan eta Ebarekin abiatuzale dira orduko kronikak, beren historia nondinahiko pertsonaia mitikoz hornituzaleak diren bezala. Premia berrien arabera, genealogia berriak asmatu dira. Hala sortuko da (Espainian!) iberikoan eta Tubalen kontua, euskaldunon arbasoarena, dirudienez XII/XIII. menderako jada bazebilen. (Aitor, XIX. mendean, ez da horren «sekularpen» logikoa edo desbiblizapena besterik, izpiritu laizista batean, eta euskaldunok espainolengandik bereziz). Lisboa Ulisesek fundatu zuen. Britonak edo ingelesak Erromako Bruto, Eneasen birbilobaren ondorengoak dira. Frankoak aldir, Frantziari jatorria eta izena eman diotenak —«erromatarren ahaide hurbilak», Grimm anaien *Deutsche Sagen* liburuan (1816-1818) irakurtzen dugun ez—, zuzenean Troiatik etorri dira: erreketatik ihesi, Franko izeneko printze troiarrak Rhinera etorri eta han geratu da bereekin, «ibaia itsasoa zelakoan» (423 zenb.). Alesander Magno hiltzean haren armadako parte bat Turingiara erretiratu eta bertan tokitu zen, eta haiek dira orain saxoinak (413 zenb.). Bavariarrak Armeniatik etorri ziren, eta horregatik Noeren arka Ararat mendian daukate beren armarran (422 zenb.). Hunoak, sorginen eta basagizonen kumeak dira, horregatik dira hain txapar, itsusi eta ohilak (378 zenb.)... «Horregatik», «horregatik», errepikatzen da. Genealogia hauiek esplikazioak dira hortaz: esplikazio historiko «razionalak».

Hala ere, bi anaia aleman ipuin eta saga biltzaile famatuek saga gisa argitaratu dituzte kontuok, momentu bat ere ez dituzte historikotzat hartu (literarioki interesgarritzat bai), XIX. mendearan hasieran jada. Ez dira nahastu behar historia estriktoa eta le-

gendak. (Horiek berezten ikasi eta gero bakarrik ahal izango da ikasi apika, zientzia eta mito nahiko berdinak direla azken finean). Herodotok kontatzen du (II, 143), nola behin oharu behar izan zuen Hekateo Miletoak, bere burua hamaseigarren belaunaldian jainko baten ondorengotzat zuenak, jainkoak genealogia grekoak, denboraren beste dimentsio batzuekin ziharduten apaiz egiptotarrontzat zentzurik batere ez zutela.

(Hautzat historiak grekoentzat baino milaka urte eta ehundaka belaunaldi gehiago zituen). Zalantza gabe, Herodoto ez zen eszeptiko bakarrik. *Alzibiades* elkarriketa platonikoan, jainkoak etorkikoa dela, banaloriatzen da izen horretako gaztea, Atenasko familia nobleenarietara baina bera. Sokratesek, hargina besterik ez baita, bera ere baiez, Zeusen haurra dela, jaukitzen dio ironiazko irizuri batez, Dedaloren mito bere genealogia pertsonala legez interpretatuz! *Akarnaiarrak* komedian Aristofanes majo burlatzen da, jatorri jainkoakoz harroputzen den Amphiteos («birritan jainkoak») puntalarkulo ukiezin usteko batez.

«Mitoaren» aurkako aldaieza gogor XVIII. mendean sartu da, hirietako burgesia merkatari aberatsak, landajauregiak nobleziarekin lehian, bere arma bezala razionalismoa hartu duenean (klase berriaren mito berria), ikuspegi tradizionalak oro kupidagabe birrintzeko. Genealogiak eta familiak ez, norberak balio duena, balio du bakoitzak. Voltaire-k («euskaldun nobleari» barregarri zeritonzon, maiz esaten denaren aurka) «*qui sert bien son pays n'a pas besoin d'aïeux*» sententziatu du - ez batere gaizki, egia esan. Norbanakoaren aroa da. (Arrazoimena bakoitzaren individuala da, esan du Descartes-ek). Gero, iraultza Handiak ez du izango burubide onerik —familia batzuen lekuan beste familia batzuk nagusi; bakoitz berjabearen orde masa artaldetuak; arrazoiaren orde kaskarreko batzuk hartu ditu—, baina, hori bai, XIX. mendean antiaristokrata tinko izanen da... Eta batzuk beharbada XIX. mendean geratuak ditugu, borrokan, aspaldiko mitoarekin eta ilustrazioarekin jotaka, hots, beren eldarnio plebeitarren haizerrotekin. Behintzat, inpresioa egiten du, XXI. mendera deika ari zaizkigun profeta batzuek, berak XIX. ean eta beti atzera begira baitaude, XVIII. era «aitzinarazi» nahi gaituztela derrigor. Aspaldian inorenak ez diren problema eta borroketara.

“  
**Historia estriktoa  
 eta legendak  
 berezten ikasita ahal  
 izango da ikasi  
 apika, zientzia eta  
 mitoak nahiko  
 berdinak direla  
 azken finean**  
 ”

“  
**Kristautasunak  
 edozertaroko  
 ikasliburua Biblia  
 izan duen moduan,  
 jentiltasunaren  
 Entziklopedia  
 Homero izan da,  
 Eneida gero**  
 ”